

Xabier Alberdiren hitzak

(2009-03-23)

Xabier Alberdi naiz, Iñakiren lankide eta adiskidea.

Ez dut berbarik adierazteko zenbat irabazi dudan nik, Iñaki ezagututa. Ez dut berbarik neure samina adierazteko. Hitz batzuk esango ditut, hala ere, Iñaki gogora ekartzeko.

Aspaldi ezagutu nuen Iñaki, orain dela hogeitaka urte: Deustuko Unibertsitatean ezagutu genuen elkar, euskara irakasten.

Zorionez, handik urte batzuetara berriro gurutzatu ziren gure bideak eta gure bizitzak, Iñaki EHUn irakasle hasi zenean. Harrezkero, beti izan dut alboan: batera ibili gara irakasle moduan Euskal Filologia sailean, eta batera egin dugu bidea bizitza akademikoan: bai EHUKo Euskara Institutuan, bai Euskara Zerbitzuan, bai eta azken urte hauetan ere.

Lanbidez irakaslea zen Iñaki, eta ez edonolakoa, irakasle bikaina baizik; langile porrokatua, ikertzaile zorrotza, eragile eta antolatzaile paregabea, edozein egitasmo portu onera eramateko behar diren pertsona baikor eta eraginkor bakan horietako bat.

Iñakiren heriotzaren ondorioz, asko galtzen du Euskal Herriko Unibertsitateak, asko galtzen du euskararen munduak. Baina, batez ere, hemendik aurrera, pertsona eskuzabal, itxaropentsu eta emankor baten falta nabarituko dugu guztiok.

Lankide eta adiskide ezinbestekoa izan da urteetan niretzat Iñaki.

Gutxitan gertatzen da bizitzan Iñaki bezalako pertsona bat ezagutzeko zorte ona izatea. Nik eta zuetako askok zorte handi hori izan dugu, eta, orain, albotik joan zaigula

ikusita, hutsune lazgarria, hutsune ordeztu ezinezkoa sentitzen dugu bihotzean.

Iltzatuta bezala geratuko zaizkigu gogoan, harekin bizi izandako une gozo eta latzak.

Mila esker, Iñaki, erein duzun guztiagatik, eman diguzun guztiagatik eta zure adiskidetasun eta gizatasun beteagatik!

Ez adiorik!